

txoritxoari mokoka

Amagoia Iban

ZAPARRADAREKIN BUSTI GABE

Igande goizerako plana

Vatikanoak «dohatsu» izendatu zuen duela hamar urte Josesaria Escriva de Balaguer integrista katolikoa. Datorren igandean, berriz, herri askotan (tardean gurea) eragin nabarmena duen «estatu espiritualean» Opus Dei delakoaren sortzailea aldareetara goratuko dute, gaur egungo katolikoentzako kanon bihurtuz Erdi Aroa XX. mendean biziberritu duen sektaren sortzailea. Orduko bidetik jarraitzen dute Escriva zaleek: eskuin eta katolikotasun muturraren muturrean. Escrivaren goratzeak egungo Vatikanoko na-

Islamabad hiriburutik

Aldian behin, eskerrak, telebistak jendearengan duen eraginari buruzko gure iritziak kolokan jartzen dituen uneak bizi ohi ditugu. Atzo eguerdian, adibidez, honako hau ikusi genuen: Islamabad nongo hiriburua den galdetu zioten *Date el bote* lehiaketan boskote bati; eta, erantzun egokiaren bila bostak hizketan egon eta gero, «Irakekoa» erantzun zuten. Albistegi, dokumental, eztabaida eta film zaparrada batean batere ez zipriltintzeak ere badu bere meritua, aizue!

gusien norabidea erakusten digu. Eta nora joko dute, bada, Espainiako iriati-telebista publikokoek igande goizean? Erromako San Pedro plazara, Joan Paulo II.ak emango bide duen kanonizazio meza zuzenean eskaintzera! Goizeko 10:00etan hasita, bi ordu eta erdiko saio berezi bat eskainiko dute handik La2n. Lasai egon, ordea, *Últimas preguntas* eta *Testimonio* saio katolikoan jarraitzaileok, horiek ere igandean eskainiko baitituzte. Esfortzuaren neurria hartzeko lagungarri izan daitekeen datu bat: Espainiako Apezpikuen Batzarraren COPE iriatiak berak ere ez du hainbeste lanik hartu kanonizazioaren berri emateko. Zertarako, RTVE lan horiek hartzeko amorratzen baldin badago?

LABURAEAN

ETB1ek % 6,5eko audientzia lortu du irailean, eta T5ek lidergoa berreskuratu du EAEn

Arabian, Bizkaian eta Gipuzkoan T5 kateak izan du ikusle gehien joan den hilean (%22). Bigarren tokian TVE1 dago (% 20,9), eta hirugarrenean ETB2 (% 19). Urteko batez bestekoa kontuan hartuta, ETBko bigarren kateak ikusleen % 8,5 ditu (jaz baino puntu bat gehiago). ETB1ek, berriz, %6,5eko audientzia lortu du (jazko irailean, %4,8 baino ez). ETB2ko *Teleberri* da oraindik ere gehien ikusten den albistegia. ETB1en, kirol emanaldiek bildu dute ikusle gehien.

Iñigo Arbizak 'El patio' irratsaioa estreinatu du Donostiako Herri Irratian

Astelehenean hasi zen Herri Irratian *El patio* izeneko magazina, Iñigo Arbizak aurkeztuta. Egunero, arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara, bizilagunen topaleku bat izateko helburua du programak. Lehenengo orduan, aktualitate gaiak jorratuko dituzte, eta *El corrillo* atalean Nerea Aguado eta Esther Erpaza kolaboratzaileek hartuko dute parte. Bigarren orduan, elkarrizketa lasai bat izango da, eta egunero atal finkoak izango dituzte.

Euskadi Gazteak enkanteak antolatuko ditu laugarren urtez

Euskal Herritik kanpo dauden kooperanteen proiektuak laguntzeko asmoz, enkanteak egingo dituzte aurtenera Euskadi Gazteko *Hi bizi haiz hi* irratsaioan. Ikasturteko lehena urriaren 7an aurkeztuko dute, 20:00etan. Enkante nagusia, berriz, urriaren 24an egingo dute. Proiektuei buruzko informazio gehiago www.eitb.com helbidean lor daiteke.

IBAN GARATE 'BETI ZUZENEAN' SAIOKO AURKEZLEA



«Betizu bihurtu naiz dagoeneko»

Haur saioetan ibili da azken hiru urteetan Iban Garate, eta astelehenean 'Beti zuzenean' lehiaketarekin hasi zen (19:15).

Urtzi Urkizu | DONOSTIA

Azkoitian jaio zen Iban Garate, duela 20 urte. Realzale amorratua eta azkoitiar peto-petoa. Neska-mutikoei zuzendutako ETBko lehenengo zuzeneko lehiaketa aurkeztu hasi da. Berarentzat propio prestatutako saioa ematen duela dio.

■ Batzuk ez dira gogoratuko, baina zu Goenkale-n hasi zinen. Zer moduz ibili zinen aktore lanetan?

Ondo. Aktore lanean dena planifikatuta dago. Goizeko 07:30ean makillajea genuen, gero entseatzen hasten ginen, eta zegoen gidoiari jarraitu behar genion. Hiru urte egin ni-

'BETI ZUZENEAN' LEHIAKETAKO LEHENENGO EGUNA

«Ez genuen telefono deirik izan, eta ni neu aritu nintzen jolasean eta puntuak biltzen»

BETIZU TALDEA

«Partaideen bideoak emititu eta gonbidatuei haien gaineko iritzia eskatzen diegu»

tuen *Goenkale*-n, eta azken hiru urteetan Betizuen munduan sartu naiz.

■ Alde handia al dago lan batetik bestera?

Bai. Aurkezle lanean inprobisatzeko leku gehiago dago, ez da hain lotua. Gehiago zara zu, eta ez fikziozko pertsonaia. Alde horretatik, autonomia handiago daukazu, baina bietan ondo. Orain, aurkezten gusturago sentitzen naiz.

■ Beti Zuzenean lehiaketa zuzeneko da, eta horrek ere izango ditu bere zailtasunak. Nola joan zen lehenengo programa?

Lehiaketan ez zen telefono deirik sartu, eta ordu laurden batez hitz egiten aritu behar izan nuen. Jolasa nolakoa zen azaltzen aritu nintzen, ni neu jolasean eta puntuak biltzen. Horrelakoetan esaten den bezala, zuzeneko kontuak.

■ Erronka polita izango da zuzeneko saio batean aritzea, ezta?

Betizu zuzeneko faltsuan egiten genuen saio osoa. Baina zerbait gaizki esanez gero, mozteko aukera bazegoen. Hemen akatsetatik ateratzen jakin behar da. Asteleheneko esperientzia sekulako proba izan zen, izerdi hotz pixka bat atera nuen, baina aurrera egiten jakin genuen.

■ Zertan datza Beti Zuzenean saioko jokoa?

«Aurpegi ezkutua» izenekoa dago, panel ezkutu batean; ontzien jolasa bezalakoa da. Lehenengo atala euskalkiarena da: norbaitek bere euskalkian esaldi bat esaten du, eta gaztetxoak euskara batuan jartzen jakin behar du. Beste proba bat bikoteena da: sei panel daude eta lotu

egin behar dira. Hirugarren proba galdera-erantzunen *tribial* modukoa da. Azkenik, hogeitauk txoz beteriko panel bat dago, eta horren atzeko pertsonaia ezkutua asmatu behar da.

■ Lehiaketaren ondoren Shin-Chan dator. Eta 19:55ean Betizu Taldearen programa. Zein dira saio horren osagaiak?

Hiru irakasle daude neska-mutikoei: Joxe Mendizabal, Lur Korta eta Lorea Perez de Albeniz. Set bat jarri dute Durangon, eta bideo batzuk grabatzen dituzte. Bideo horiek emititzen ditugu, eta gure gonbidatuei lehiakideen bideoen gainean iritzia eskatzen diegu.

■ Telebista eskaintzatik zer duzu gustuko?

Bada, egia esan, nik ez dut askorik ikusten telebista. Kirolak bai, dezente. Eta Euskal Telebistako programa gehienak bai, kontrolatzen ditut.

■ Nolakoa da Iban Garate ETBtik kanpo?

Nire zaletasun handia futbola izan da, eta realzalea naiz. Igan-dean Sadarren egon nintzen, eta garrasi asko egin nuen. Uste dut asteleheneko programan nabari izan zitzaidala. Antzerkia ere gustatzen zait. Bestalde, Iruñean ari naiz ikasten.

■ Haur saioetan ondo sentitzen zara ala nahiago zenuke beste zerbait egin?

Gaztetxoak oso esker onekoak dira, *Goenkale*-ko publikotik oso ezberdina dut orain. Bene-benetan maite zaituztela sentiarazten dizute umeei. Pare-pareko lana egokitu zait, eta zorte handia izan dut. Betizu bihurtu nintzen, eta pozez zorutzen nago.